

2/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO MARTXOAREN 21EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEORDEA

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Pello Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Idoia Baraizar Otaño

Anoetako udaletxean, 2016ko martxoaren 21ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Izaskun Jauregi Saizar Alkateordearen Lehendakaritzapean, eta Idoia Baraibar Otaño andrea, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2016KO OTSAILAREN 29KO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2016ko otsailaren 29ko udal plenoaren bilkuraren akta irakurri eta aho batez onartua izan da.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2016KO OTSAILAREN 15ETIK MARTXOAREN 15A BITARTE, BIAK BARNE.

2016eko otsailaren 15etik martxoaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkateorde andreak, udalbatzakideak jakinaren gainean geratuz.

3.- 2014KO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzak jakintzat eman du 2015eko abenduaren 29ko dekretua, zeinaren bidez 2014 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

“DEKRETUA

Anoetan, bi mila eta hamabosteko abenduak hogeita bederatzi.

Udal honek 2014ko aurrekontuaren likidazioari buruz Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen txostena eta berau osatzen duen dokumentazioa ikusiri, eta bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honetako 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2014-12-31n:		946.933,86
2.- kobratu gaeko saldoak 2014-12-31n:		411.400,40
Aurrekontuko zordunak:	372.734,22	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	39.254,84	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-588,66	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n:		732.868,40
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	578.541,34	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	10,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	155.937,63	
- Aplikatu gabeko odainketak:	-1.620,57	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):		625.465,86
5.- Saldo kobragaitzak:		69.040,89
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)		556.424,97
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		556.424,97
9- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-105.738,61
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza		- 1.032,23
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik		7.509,86

13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	-99.260,98
14.- Txertatu daitezkeen kreditu garakinak	0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu garakinak	0,00
16.- Kreditu garakinak guztira (14 + 15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Hurrengo plenoari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela agindu eta sinatu du Izaskun Jauregi Saizar alkateak; eta neuk, idazkariak, fede eman”

4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN JARRAIPEN ZERBITZUAREN LIZITAZIOA BERRIA EGIN ARTE.

2011ko azaroaren 3an Anoetako Udalak eta EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS S.A enpresak etxez etxe laguntza zerbitzuaren kontratua izenpetu zuten, osoko bilkurak 2011ko irailaren 26an hartutako esleipen erabakian oinarrituta. Kontratu horrek, luzapenak barne, 2015eko azaroaren 2ra arteko indarraldia dauka.

Enpreska orduz geroztik zerbitzua ematen jarraitu du, eta urtarriletik aurrera prezioa eguneratuko dutela adierazi dute (+0,3%).

Kontratuaren xede den zerbitzu publikoaren jarraipena ezinbestekoa izanik, beharrezkoa da orain arteko kontratuarekin jarraitzea lizitazio berria amaitu bitartean.

Kontratuaren zati diren baldintza administratiboen agirian (3. Klaus.) dionez Udalak egoki jotzen badu, esleipendunak zerbitzua prestatzen jarraitu behar du bere garaian esleitzen duten kontratu berria hasi arte, betiere gehienez urtebetez.

Aztertu da Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen erizpena.

Hau honela izanik, partaideek aho batez ondorengoa onartu dute:

- Zerbitzuaren kontratista den EULEN S.A enpresarekin, kontratua luzatzea, zerbitzuaren kontratazio espedient berria bukatua egon arte. Honako baldintzatan: orduko prezioa KPIaren arabera eguneratuz (+0,3%).

5.- GALDE-ERREGUAK

Bat ere ez

Eta beste aztergairik ezean, Alkateordeak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.